

KAPITALAREN MINTEGIA

9. SAIOA

ZAZPIGARREN ATALA

Zazpigarren atalean Marxek ekoizpen prozesua (lan prozesua + balorizazio prozesua) eta zirkulazio sinplearen esfera ($M-D-M/D-M-D$), hau da, merkatua, elkarrekin hartuko ditu kontutan. Analisisan zehar bereizi izan dituen bi momentu horiek (ekoizpena eta merkantzien salerosketa) prozesu beraren parte dira-eta: kapitalaren zirkulazioa edo kapital-metaketa. Izan ere, dirua kapitala da baldin eta soilik baldin ekoizpen-bitartekoak eta lan-indarra erosi, bitarteko horiekin merkantziak ekoiztu eta, ondoren, ekoiztutako merkantziak merkatuan saltzen baditu, eta salmentan lortutako diruarekin berriz ekoizpen prozesua abiarazten badu. Kapitalaren balorizazio prozesu erreala ($D-M-D'$), beraz, merkantzia ekoizpen eta salerosketan datza.

Kapital-metaketa bere horretan ikertu aurretik, kapitalaren zirkulazioan gainbalioak forma ezberdinak hartzen baititu eta haren apropiazio kapitalista konplexua baita oso, kapitalaren erreprodukzioaren auziari helduko dio lehenik Marxek (XXI. kapitulua) eta, ondoren, gainbalioa nola bilakatzen den kapital azalduko digu (XXII. kapitulua).

XXI. KAPITULUA. ERREPRODUKZIO SINPLEA

Marxen aburuz ekoizpen-prozesu sozial oro, aldi berean, erreprodukzio-prozesua da; izan ere, ekoizpen modua edozein dela ere honek jarraikorra izan behar du eta lantzean behin prozedura berdinak errepikatuko ditu. Zentzu zabal honen arabera erreprodukzioa, edo ekoizpena bera, ekoizpen-baldintza jakinen jarraipena litzateke: datorren ekoizpen-zikloari bide eman diezaioketen produktuak ekoiztuz, hurrengo ekoizpen-ziklo orokorra ziurtatuko bailuke unean uneko ekoizpenak berak. Bada, ekoizpen-prozesu sozialak sortutako produktuak bi motatakoak dira. Alde batetik, norbanakoen kontsumo propiorako ekoiztutako produktuak eta, bestalde, ekoizpen-prozesuan zehar kontsumituko direnak. Bigarren kontsumo mota horri, ekoizpenak egiten duenari, "kontsumo produktibo" deritzo Marxek (ekonomia politiko klasikotik jasota). Halaxe, ekoizpenak forma kapitalista badu (baldin eta soilik baldin gainbalioa badu ekoizpenak helburu) ekoizpen-baldintzen erreprodukzioa ere kapitalista da eta, ondorioz, erreprodukzio-prozesu kapitalistari propioa zaion "kontsumo produktiboak" balorizazio ($D-M-M'-D'$) forma hartzen du kapitalaren zirkulazioan.

Kontsumo produktibora zuzentzen direna produktuak, ekoizpena berriz martxan jartzeko erabiltzen direnak, gainbalioak ordezkatzen duen produktu multzo horren parte dira (gainproduktua dira). Bada, "erreprodukzio sinplea" abstrakzio analitiko honi deritzo Marxek: ekoiztutako produktuen balioa (nahitaezko lana + gainlana), oso osoan, ekoizpenean erabilitako kapital aldakorra eta kapital konstantea ordaintzeko beste bada (prozesua berriz abiarazteko beste alegia), baina, aldi berean, balio kopuru bat zeinak ez duen kapital-metaketa nabarmenik posible egingo. Bestela esanda: haren kontsumo produktiborako nahikoa den balioa, eta soilik balio hori, sortzen duen balizko ekoizpen prozesua. Erreprodukzio sinple, beraz, eskala bereko ekoizpen prozesuaren errepikapenari iritziko dio aurrerantzean Marxek. Abstrakzio hutsala izatetik urrun, zera ulertzeko balio digu: 1) kapital-metaketa logika, haren adierazpen ekonomiko sinpleenean; gerora prozedura konplexuen ulerkerara errazago egingo duena. 2)

ekoizpen prozesuaren eta merkatuaren arteko dependentzia; hau da, kapital-metaketaren dimentsio soziala.

Ekoizpena eta merkatua elkarrekin hartzean kontutan, klase-dominazio sistema jakin baten ondorio legez aurkeztuko dizkigu Marxek hasiera batean merkatuaren kontingentzia, merezimendu edo kasualitate ziruditen botere harreman guzti horiek. Erreprodukzioa sinplea, hori dela-eta, abstrakzio kritiko-politikotzat ere har dezakegu, pentsamendu burgesaren uste eta sinesmen asko deuseztatzeko balio duena. Adibidez: langileak lan egin ondoren kobratzen duenez gero (normalean, gaur egun, hilabeteren buruan) ekonomista politiko klasikoek pentsatu izan zuten langileak ordainetan jasotzen duen hori (ekoizpenean lortutako produktu osoari erreparaturik) ekoizpenean hark izandako parte-hartzearen baliokidea dela. Hau da, egindako lana ordaintzen zaiola eta ez langileak ordezkatzeko duen lan-indar merkantziaren prezioa. Alabaina, ekoizpen-prozesuari eta merkatuari aldi berean erreparaturik, kapital zirkulazioari alegia, argi ikusenez langilearen ordainsaria hark edo beste langile batek aurreko ekoizpen-ziklo batean sortutako gainbalioarekin ordaintzen dela. Aurretik baten-bati ordaindu ez zaion lanarekin lortutako dirua bada gerora langileak trukean jasoko duen hori, kontutan izanda ere ordainduko omen zaion lan-prozesu horretan langileak nahitaezko lana egin eta plus-lan denboran zehar lan egin duela (hau da, bai lan-indar merkantziaren baliokidetza eta bai burgesak bere egingo duen gainbalioa berak sortu dituela), langileriari ez zaio inoiz lanaren truke ezer ordainduko. Nolabait debalde ordaintze du burgesiaren lan-indar merkantzia.

Erreprodukzio sinple abstrakzioa ekoizpen-eredu kapitalistari propioak zaizkion halako klase ezaugarriak mahaigaineratzeko darabil Marxek. Ikusarazteko, batik-bat, ekoizpenak berak, bestelako ezein prozesuren beharrik gabe, kapital harremana erreproduzitu egiten duela. "Kapital harreman" Marxek langileriaren eta burgesiaren klase bereizketari deritzo; ondorioz zera argitu nahi du kapitulu honetan: ekoizpen bideen jabetza pribatua, alde batetik, eta euren lan-indarraz gain bizirik irauteko bestelako baliabiderik ez duen jendartea, bestetik, betikotzen dituela ekoizpen-prozesu kapitalistak. Zehatz-mehatz zera dio: langileak berak aberastasun soziala kapitalaren forma pean sortzen du, burgesiaren jabetza bezala eta haren gozamenerako; halaxe, langileak, izan baden aberastasun oro berak sortu arren, ez du aberastasuna bere egiterik eta ezin du, horren ondorioz, burgesekiko duen dependentzia gainditu.

Marxen aburuz ekoizpen prozesu kapitalistak, bere garapen propioaren poderioz, lan-indararen eta lan-baldintzen (ekoizpen bideen) arteko bereizketa erreproduzitzen du, langileriaren esplotazio-baldintzak ere betikotzen dituelarik. Erreprodukzio sinpleak agerian uzten du, honenbestez, langileen eta burgesen arteko oposizioa ez dela kontingentzia soilak, morrontza-ekonomiko jakina baizik. Zentzu horretan dio Marxek langileriaren kontsumo indibiduala, haren burua erreproduzitzeko eta haren gozamenerako egiten duena, ekoizpen-prozesu kapitalistaren kontsumo produktibotzat har daitekeela, burgesek ekoizpen bideen eta aberastasun sozialaren jabetza pribatua izan dezaten nahitaezko gastu produktibo legez ere uler daiteke-eta langileen mantenua.

XXII. KAPITULUA. GAINBALIOTIK KAPITALERA KO ERALDAKETA

1. Ekoizpen prozesu kapitalista eskala hedatu batean. Merkantzia-ekoizpenaren jabetza legeetatik jabetze kapitalista legetarako bilakaera.

Marxek kapital-metaketa honako honi deritzo: gainbalioa ekoizpen prozesu berria martxan jartzeko darabilenean kapitalistak, hau da, hark eskuratutako gainproduktua kapital bihurtzeari. Beraz, gainbalio soilik bihur liteke kapital baldin eta soilik baldin kapitalistek merkatuan eros ditzaketan merkantzia berrien artean (kapital-sozial osoa, kapitalista partikularrek ekoiztutako guzti horren batura) ekoizpen prozesu berria abiarazteko beharrezkoa diren produktuak badaude. Ekoizpen ziklo orokor batean sortutako gainbalioa ezin liteke norbanakoen kontsumo pribatuan, bestelako dimentsio sozialik gabe, desagertuko den merkantzia multzoaren baliokidetzat izan (adibidez, luxua); ekoizpen bideak eta lan-indarraren mantentzeko premia eta nahitaezkoak diren merkantziak ekoizpen ziklo orotan ekoiztu behar dituzte kapitalistek: ekoizpenean bertan agortutako baliabideak berriro eskuratu asmoz. Kapitalistak gainbalioa kapital bilakatu eta ekoizpen prozesu berria abiarazi ezker, gainbalioa bera sortu zuen aurreko ekoizpen prozesua baino handiagoa izango den ekoizpen prozesua jarriko du martxan. Izan ere, prozesu berri horren hasierako balio magnitudea handiagoa izango da (ekoizpen prozesua I: $D-M-D'$; ekoizpen prozesua II: $D'-M-D''$). Kapital-metaketa, bada, kapitala etengabe eskala handiagoan erreproduzitzen duen prozesuan datza.

Kapital-metaketak ekoizpen maila handitzen duenez gero lan-indarraren premia ere areagotzen du, ekoizpena handitzean lan-indar gehiago behar izaten dute eta kapitalistek. Horregatik dio Marxek lan-indar merkantziaren prezioak, soldadak alegia, langileria klasearen erreproduzio soziala posible egin behar duela, eta ez soilik norbanakoaren lan-indar propioarena.

Gainbalioa balorizatutako balio bada, kapital-metaketa kapitalizatutako gainbalioa da Marxen aburuz. Oso-osorik, langileen lanak sortutako balioa, gainbalioa eta kapitala; haren jabetza, ordea, kapitalistarena berarena dena. Kapitalistek lan-indar merkantzia ordaintzen duten ezker, hau da, ez diotenez langileari haren lanaren truke ezer ematen (lana, lan-indar merkantziaren kontsumoa alegia, kapitalistaren jabetza baita, lan-indar merkantzia saltzean langileak berak kapitalistaren jabego bihurtu duena), gainproduktuaren apropiazio kapitalista eta merkatu-legeak ez dira elkarren aurkakoak. Hau da, lanaren esplotazio kapitalista (gainbalioaren ekoizpena) eta merkantzia baliokideten arteko truke-harremanak bat egiten dute ekoizpen eredu kapitalistan. Alabaina, justua irudi duen ordainketa hau, lan-indar merkantziaren ordainketa, itxura hutsa da Marxentzat. Bada, bai, egiazko baliokideten arteko trukea, langileak bere lan-indarra diru kantitate jakin baten truke saltzen baitio kapitalistari; baina lan egiterakoan langileak kapitalistak ordainetan eman dion diru kopurua erreproduzitu eta gainbalioa ere sortzen du, zeinarekin kapitalistak gerora lan-indar merkantzia (aipatu langilearena edo beste batena) ordainduko duen. Gainbalioaren baliokidetzat zuzenean kapitalistak ez du diru gasturik izan, nahiz eta kapital aldakorra eta kapital konstantea ordaindu, bada haren salmentan lor zezakeen diruarekin ordaindu ohi du kapitalistak ekoizpena burutzeko behar duen merkantzia oro (baita lan-indar merkantzia ere).

Marxek dio jabetze eredu kapitalistaren forma, itxura alegia, lan-indarraren etengabeko salerosketarena dela, baina kapitalistak beste arrazoi bat dela eta bihurtzen du aberastasun soziala bere jabetza pribatu. Arrazoa, jabetze eredu kapitalistaren eduki erreala alegia, honako hau da: kapitalistak objektibatutako lan arrotz kopuru bat (langileek ekoiztutako gainproduktua) bere egiten du ordainetan ezer eman gabe eta gero objektibatutako lan horrekin bizirik den lana erosten du (lan-indar merkantzia), gainbalioa bera sortzen duena. Marxek ez du uste, aurretik

esan bezala, jabetze prozedura honek merkantzien elkar-truke legerik hausten duenik, are merkatuaren lege horiek egiten dutenean posible delako jabetze eredu kapitalista. Izan ere, ez da gauza bera merkantzia baten truke-balioa eta haren erabilpen-balioa, eta lanaren esplotazioa lan-indar merkantzia kontsumoa bera; horregatik merkantzia erostean kapitalistak haren truke-balio zuzena ordaintzen du, elkar-trukearen legeak betez, horrek, formazio sozial kapitalistan, lana esplotatzeko eskubidea ematen diolarik. Elementu guzti hauek zehaztasun osoz aurkezten dizkigu Marxek, garrantzitsuak baitira oso kapital-metaketa eskala hedatu batean, edo etenik gabeko hedapenean, hartzean kontutan. Behin eta berriz kapital bihurtzen den gainbalio berriak jabetze eredu kapitalistaren klase-harreman horiek eskala handiago batean erreproduzitzen ditu-eta.

2. Eskala hedatuko erreproduzioaz ekonomia politikoak duen ulerkera okerra.

Kapital-metaketa bi ulerkera oker: 1) Batzuek uste izan dute kapital-metaketa dirua edo merkantziak aurreztean datzala, hau da, gainbalioa giltzapean gorde eta halaxe mantentzeari iritzi izan diote akumulazio; baina kapital-metaketa kapitalaren zirkulazioa bera da, merkatuaren legeak direla-eta, halaber, kapitalistek lortutako gainbalioa etengabe ekoizpen-prozesu berri bihurtzen duena. Merkantzia-metaketa, berriz, kapitalizatu ez den gainbalioa alegia, superproduktioak eragin dezake, baita merkatuaren zirkulazio haustura batek ere. 2) Beste askok pentsatu izan du soilik lan-indar merkantzia erosteko erabiltzen den dirua dela gainbalio, kapital-metaketa posible egingo lukeena; bada, ulerkera honen arabera langileak egingo luke bere, oso-osorik, ekoizpen-prozesuan sortutako gainbalioa. Hau okerra da, izan ere, kapitalistek ekoizpen bideetan, lan-indar-merkantzian eta abarretan inbertitzen dute gainbalioa (gainbalioa kapital bihurtu dadin lehenengo biak behar-beharrezkoak ditu) eta hark ordezkatzeko duen aberastasun sozialaren jabetza ez da langilearena, kapitalistena euren baizik. Langileak ekoizpenean bere lan-indarraren balioa erreproduzitu eta gainbalioa sortzen du, lehena berak jasoko du eta bigarrena kapitalistak.

3. Plusbalioaren bereizketa kapital eta erretan. Abstinentziaren teoria.

Marxek hemen "errenta" esanahi bikoitzarekin darabil: alde batetik, gainbalioari berari deritzo errenta, kapitalak ekoizpen-prozesuan zehar sortzen duen balio gehigarri horri hain zuzen ere; eta, bestalde, kapitalistak bere kontsumo propioarako darabilen gainbalioaren proportzioari, ez duena berriz kapital bihurtzen, ere errenta deritzo. Bada kapitalistak gainbalioaren zati bat bere kontsumo propioarako gordeko du (errenta) eta gainontzekoa kapital legez metatuko du, azken honekin ekoizpen-prozesu berria abiaraziko duelarik. Zer kontsumitu eta zer inbertitu kapitalista beraren erabakia izan arren, haren kapitalak (jatorrizko kapital magnitudeak, $D-M-D'$ prozesua abiarazi duenak) errotik baldintzatuko du erabakia. Kapitalen arteko konpetentziak bere ekoizpena handitu eta areagotzeko eta, beraz, kapitala metatzen jarraitzeko premia sorrarazten baitio kapitalistari. Kapitalistak duena mantentzeko, etengabe bere kapitala handitu behar duela diosku Marxek.

Errentak (kapitalistaren kontsumo pribatuak) meta litekeen kapitala baldintzatzen duen ezkerro, askok defendatu izan du Marxek abstinentziaren teoria izendatzen duen hori. Hauen aburuz kapitalistak ahalik eta gutxien kontsumitu behar du (kontsumo pribatua), ekoizpena bera ziurtatu eta areagotu dezan. Edo bestela esanda: abstinentzia teoriaren defendatzaileen arabera izan baden aberastasun oro kapitalisten abstinentziari esker da, hau da, aberastasun sozialaren

jatorria kapitalisten zuzentasun morala da eta ez lan-indarraren esplotazioa. Alabaina, Marxek luxua, kapitalisten kontsumo pribatua eta abstinentzia eza (kapitalisten gozamina, alegia) kapital-metaketa eskutik azalduko dizkigu, azpimarratuz kapital-metaketa berak, apurka-apurka, kapitalisten kontsumo pribatua areagotu dezakeela eta seinatuz, bestalde, badirela gastu pribaturako motibo ekonomiko kapitalistak ere. Adibidez: kapitalistek euren ondarea areagotzeko premia izan dezakete (etxebizitzak eta halakoak erosteko beharra), izan ere, ondarea diru-kreditua eskuratzeko baliabide ere bada.

3. Plusbalioaren kapital eta errenta arteko banaketa proportzionala edozein delarik ere, kapital-metaketa baldintzatzen duten zirkunstantziak: lan-indarraren esplotazio maila, lanaren ekoizpen-indarra, gero eta handiagoa den erabilitako eta kontsumitutako kapitalen arteko aldea, ordaindutako kapitalaren magnitudea.

Kapital-metaketa gainbalioen magnitude absolutuak errotik baldintzatzen duenez gero, gainbalio masari eragiten dioten faktore guztiek kapital-metaketa berari ere zuzenean eragiten diote. Hau da, gainbalio masa eta, ondorioz, kapital-metaketa lan-indarraren esplotazio mailaren (gainbalio kuota) eta lanaren ekoizpen-indar sozialaren arabera dira. Demagun gainontzeko faktoreak berdin mantenduta lan-indarraren esplotazioa areagotzen duela kapitalistak; bada, ekoizpen-prozesuan zehar kontsumitu beharreko lehengai kopurua, esate baterako, handiago izango da eta berrikuntza honek, lanaldi bakoitzean lortuko duen gainproduktua handiago egingo denez, kapitalistaren kontsumoa areagotu zezakeen kapital bilakatuko duen gainbalio proportzio hori murriztu gabe. Kapital-metaketa eragotzi gabe alegia. Alabaina, Marxek dionan arabera, lan-indarraren esplotazioa areagotzeak ez du lan-indar merkantziaren prezioa bat-batean altuagoa egiten, bai handitzen du, ordea, lanaldi batean burutzen den lan kopurua; hori dela-eta, kontsumitu beharreko kapital konstantea ere areagotu egingo da eta azkenerako kapital-metaketa bera bizkortuko du (kapital bihurtuko duen gainbalio proportzioa ere handiago izango delarik).

Ekoizpen bideen garapen zientifiko eta teknikoak lanaren ekoizpen-indarra areagotu dezakete, lan-indarraren esplotazioa aldatzen ez den kasuetan ere. Ondorioz, ekoizpen bideen balioa eta bolumena handitu ahala langileriak kapital konstante berri honen balioa erreproduzitu egiten du eta, aldi berean, ekoizpen bideen garapen tekniko eta zientifikoaren eskutik datorren kapital konstantearen metaketari bide ematen dio. Lan-indarraren esplotazio maila berdin mantendu arren gainbalio masa areagotu dezake kapital konstantearen handiagotzeak, metaketa eredu honek lan-indar merkantziaren (kapital aldakorra) beharra areagotzen du-eta. Hau da, langile gehiago hartuko ditu bere gain datorren ekoizpen prozesuak.